



Urtarrillean, orain ille bi, EGIN izparringian euskaldun barri baten idazki bat agertu. zan. Bilbao'ko Udalbatzak kale bateri Aita Patxi'ren izena ipintearen erabagiari ezezkoa emoten eutson eta Aita Patxi zoro bat, buru-gogor bat baiño ez zala izan esaten eban.

Aita Patxi'ren bizitzan adorea, kemena, ontasuna, bere burua ukatzea ta urko lagunarentzat ongarrri izatea oargarriak ziran. Or agertzen da Aita Patxi'ri omen eta oroimen berarizkoa agertzeko oiñarria. Bere abadetzearen asieran gudarien artean ibilli bear izan eban eta antxe agertu eban bere kemena, eragiña ta ukamena.

* * *

ARRISKUETAN

Aita Patxi'ren aurka jokatu ebenentzat santu kristiñauak zoro batzuk baiño ez dira, baiña gizonik aundiñen antzera, aita Patxi'k erria otseindu eta gizakideen alde bere burua eskiñi eban.

Ona emen bere biotzeko gurariak agertzen dabezan berbak:

«Iru gudarigaz nengoala, kurutzea eskuan nebala, asi ziran suagak, eta lerkaiak botaten egazkiñak. A zan izatekoa! Neure ondo-ondoan jausi zan bat eta ni konorte barrik lurrera jaurti ninduan. Ez nekian bizirik ala ilda nengoan. Gorputzari eragiten asi nintzan bizirik ala ilda nengoan jakiteko eta bizirik nengoala ikusirik lurpean gurutzearen billa asi nintzan eta aurkitu nebanean, gudarien billa asi

GUDARIEN LAGUN BAT

nintzan koitaduai laguntzeko. Danak niri deika egozan, negar eta negar... Guztiok gengoan estu ta larri, egazkiñak geuganaiño jatsiten ziran-eta. Olango baten, batak jaurtiten igaro zan egazkin bat ni gudariari lagunduten nengoala... eta ainbeste bider eriotzea aurrean euki arren bizirik urten neban. Jaungoikoaren eta Amabi,jiñearen laguntasuna argi ta garbi ikusten zan ibilli nintzan lekuetan.»

GUDARI - BURU?

Aita Patxi ain kementsua izanik, egingo eutsoen omenaldiren bat. Eunburu egin eben, baiña eunburuaren izarrak gudari-soiñekoetan ez ebazan erabilli gura. Olan diñosku berak. «Kapitai izan arren, ez nituan erabilli eunburuaren izarrak».

* * *

EKINTZAILLE

Grekar abizen-antzeko Papanopolis edo Alexandropolis izenpetzen dauan idazle arek, egiaren bidetik aldentuta, diño: «Aita Patxi bere biziaren azken egunetan, auto Stop eginda basetxeetara joaten zanean, autolariak neketu egiten zituala bere errosarioagaz eta batetik bestera eten barik ibiltzen zala bere lekaide-etxera dirua eroateko».

Baiña egi-egia jakin gura ba'dogu, Aita Patxi'rentzat dirua ez zan ezer. Aita Patxi Kristo'gaz eta Kristoturik bizi jakun, beti, baiña batez be abade egin zan ezker. Kurutzea ta Gure Jauna, biak ez ba'ziran bata edo bestea, beti aldean. Mendirik mendi ta kalerik kale, gaisoai ikustaldiak egiten, bera izan zan Zeruko Ogiaren banatzaille.

* * *

ERITXIAK

Jakin dagigun berari buruz gizon ospetsuak eta entzutsuak izan eben eritxia:

Sabino Manzarbeitia'k: «Otxandio'ko atzera-aldian, ikara, bildur eta igeste-une aretan, bulartsu ta kemenez beretik il-zorian eta zaurituta egozanai nun egiteko kurutzea emoten ikusi neban aita Patxi».

Pedro Ipiña'k: «Itxura apal baten barruan, aita Patxi bere ekinean neurritz gorakoa agertzen zan, nekez ikusten dan gizon baten antzekoa».

Bixente Zabala'k: «Itxuraz gizajo, irribarrez, bildurtsu, baiña ilteko arriskuan eta zaurituai lagundu bear jakenean, beste bat biurtzen zan. Leoi bat lez ausartu, kementsu ta erabagitsu ikusten genduan aita Patxi».

LETONA'k